

Xedapen Orokorrak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5737

572/2009 DEKRETUA, urriaren 20koa, Euskadik 700.000.000 euroko zor publikoa -amortizagarria eta obligaziotan eratua- jaulkitzeko erabakiari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legeak dio zor publikoa jaulkitzea Jaurlaritzaren Kontseiluak dekretu bidez erabakiko duela, eta dekretu horretan zenbatekoaren mugak eta jaulkipena egiteko epea adierazi beharra dagoela, beste ezaugarri batzuk ere jaso daitezkeen arren. Halaber dio, dekretuan jaso ezean, ezaugarri horiek Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren agindu baten bidez finkatuko direla, eta agindu hori, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela.

Abenduaren 29ko 19/2008 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2009. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, 11. artikuluko 1. paragrafoan, baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzari zorpetze-eragiketarako egin dituzten, baina muga hau ezartzen dio aurrekontuaren gehikuntza horri: ekitaldia ixterakoan saldoa ekitaldia hasterakoan zena baino 300.000.000 euro gehiagokoa izango da gehienez ere. Urriaren 8ko 1/2009 Legeak, presako aurrekontu-neurriei buruzkoak, 2. artikuluko 1. paragrafoan, muga hori 514,63 milioi eurora arte gehitzen du. Bigarren paragrafoan ezartzen duenez, muga hori automatikoki berrikusiko da indarreko Aurrekontu Legeak jasotako sarreraren aurreikuspenen eta sarreraren benetako garapeneraren arteko desbideratzeak direla-eta, baina ezin izango da inola ere 1.350 milioi eurotik gorakoa izan.

Koordinazio-izapidea bete ondoren, bidezkoa da Euskadik 700.000.000 eurora arteko zor publikoa —barnekoa, amortizagarria eta obligaziotan eratua— jaulkitzeko xedatzea.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko urriaren 20an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Jaulkitzeko erabakia eta zenbatekoa.

Euskadiren zor publikoa jaulkitzea erabaki da: zazpiehun milioira artekoa (700.000.000) eta amortizagarria izango da.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

5737

DECRETO 572/2009, de 20 de octubre, por el que se acuerda la emisión de Deuda Pública de Euskadi, amortizable, formalizada en obligaciones, por importe de hasta 700.000.000 de euros.

La Ley 8 /1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi establece que la emisión de deuda pública será acordada por el Consejo de Gobierno, mediante Decreto, el cual debe determinar los límites máximos de importe y de tiempo para realizar la emisión, pudiendo señalar otras características, que, en otro caso, serán determinadas mediante Orden del Consejero de Economía y Hacienda que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

La Ley 19/2008, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009, en su artículo 11, apartado 1, autoriza al Gobierno Vasco a realizar operaciones de endeudamiento, de forma que podrá incrementarse con la limitación de que el saldo al cierre del ejercicio no supere el correspondiente saldo al comienzo del mismo en más de 300.000.000 euros. La Ley 1/2009, de 8 de octubre, de medidas presupuestarias urgentes incrementa, en su artículo 2, punto 1, el límite mencionado hasta 514,63 millones de euros. En su punto 2 establece que ese límite quedará revisado automáticamente por las desviaciones entre las previsiones de ingresos contenidas en la vigente Ley de Presupuestos y la evolución real de los mismos, sin que en ningún caso pueda superar los 1.350 millones de euros.

Cumplido el trámite de coordinación, procede disponer la emisión de Deuda Pública de Euskadi, interior y amortizable, formalizada en Obligaciones, por un importe de hasta 700.000.000 de euros.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de octubre de 2009,

RESUELVO:

Artículo 1.— Acuerdo de emisión e importe.

Se acuerda la emisión de Deuda Pública de Euskadi, amortizable, por importe de hasta setecientos millones (700.000.000) de euros.

2. artikulua.– Ezaugarriak.

1.– Zorra jaulkitzeko data bat etorriko da zorra ordaindu behar den datarekin, eta aurtengo urriaren 20tik azaroaren 20ra bitartekoa izango da.

2.– Zorra jaulkitzen den datatik hasita, urtero sortuko dira interesak eta orduan ordainduko dira.

3.– Baloreak parean amortizatuko dira.

4.– Amortizazio-data jaulkipen-datatik hamargarren urtera gertatuko da.

3. artikulua.– Ordezkapena.

Jaulkitako baloreak Bilboko Burtsako Elkarte Kudeatzailearen Konturako Idatzoharren Zerbitzuaren bidez ordezkatzuko dira.

4. artikulua.– Harpidetza eta ordainketa.

1.– Jaulki beharreko baloreen harpidetza jaulkipena egiteko mandatua duten erakundeek bitartez bideratuko du Ekonomia eta Ogasun Sailak. Erakunde horiek horretarako gaituta daude, baloreen merkatuaren indarreko araudiaren arabera.

2.– Jaulkipena kolokatuko duten erakundeek bakoitzari dagokion zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoaren Diruzaintza Nagusiaren izenean sartuko dute jaulkipen-datan.

3.– Jaulkipenaren «Behin betiko baldintzen orria»n finkatuko da egin duten lanagatik erakunde kolokatzailleek jasoko duten komisioren zenbatekoa.

5. artikulua.– Onura fiskalak.

1.– Dekretu hau medio jaulkitako baloreak jaraunspenez do legatuz eskuratzen badira, beren arau erregulatzailleetan jasotako murriztapena izango dute Dohaintza eta Oinordetzen gaineko Zergako zerga-oinarrian.

2.– Aplikatu beharreko arau erregulatzailleak murriztapena aurreikusita ere, murriztapenaren ezaugarriak adierazten ez badu eta murriztapena agiteko eskubidea ematen duen zorpetze publikoaren jaulkipenaren baldintzetara jo beharra jasotzen badu, ehuneko laurogeita hamarrekoa izango da ehuneko, baldin eta balore horiek kausatzailearen ondarean kausatzailea hil aurretik gutxienez urtebetez egon badira.

6. artikulua.– Konputagarritasuna.

Dekretu honen arabera jaulkitako baloreak gaitzat joko dira ondoren aipatzen diren erakundeek koefizientetan egin beharreko inbertsioen ondorioetarako. Hauek dira erakundeak: elkarren bermerako sozietateak, aseguru pribatuko erakundeak, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak eta Estatuko Zor Publikoaren konputagarritasuna berez aitortuta duten erakundeak.

7. artikulua.– Beste ezaugarri batzuk.

Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 30. artikuluko 3. paragrafoan agindutakoren arabera, Ekonomia eta

Artículo 2.– Características.

1.– La fecha de emisión, coincidente con la de desembolso, deberá estar comprendida entre el 20 de octubre y el 20 de noviembre del presente año.

2.– El devengo y pago de intereses se realizará anualmente, a contar desde la fecha de emisión.

3.– Los valores se amortizarán a la par.

4.– La fecha de amortización se producirá al décimo año de la fecha de emisión.

Artículo 3.– Representación.

Los valores emitidos estarán representados en anotaciones en cuenta en el Servicio de Anotaciones en Cuenta de la Bolsa de Valores de Bilbao.

Artículo 4.– Suscripción y desembolso.

1.– El Departamento de Economía y Hacienda facilitará la suscripción de los valores de la emisión a través de las entidades mandatadas para la realización de la emisión, entidades habilitadas para tal fin según la normativa vigente de mercado de valores.

2.– La entidad o entidades colocadoras de la emisión ingresarán el día correspondiente a la fecha de emisión a nombre de la Tesorería General del País Vasco, la cantidad que corresponda a cada una de ellas.

3.– En la «Hoja de términos definitivos» de la emisión se fijará, el importe de las comisiones que reciban las entidades colocadoras por el ejercicio de su labor.

Artículo 5.– Beneficios fiscales.

1.– Las adquisiciones por herencia o legado de los valores emitidos en virtud de este Decreto gozarán en la base imponible del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones de la reducción prevista en sus normas reguladoras.

2.– En el caso de que la norma reguladora aplicable prevea dicha reducción, pero no establezca explícitamente las características de la misma y se remita a las condiciones de emisión del endeudamiento público con derecho a ella, el porcentaje será el noventa por ciento, siempre que dichos valores hubiesen permanecido en el patrimonio del causante con una antelación mínima de un año, respecto al día de su fallecimiento.

Artículo 6.– Computabilidad.

Los valores emitidos en virtud del presente Decreto tendrán la consideración de aptos a los efectos de inversión necesaria en los correspondientes coeficientes de las sociedades de garantía recíproca, de las entidades de seguro privado, de las entidades de previsión social voluntaria y de aquellas otras entidades en relación con las que esté reconocida automáticamente la computabilidad de la Deuda Pública del Estado.

Artículo 7.– Otras características.

De acuerdo con lo establecido en el párrafo 3.º del artículo 30 de la Ley 8/1996, de 8 de noviembre, de Finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi,

Ogasun Sailari dagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko agindu bidez, jaulkipenaren behin betiko zenbatekoa zehaztea eta, orobat, dekretu honetan jaulkipenari buruz aipatu ez diren ezaugarriak zehaztea, betiere dekretuaren aurreikuspenen barruan.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko urriaren 20an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

corresponderá al Departamento de Economía y Hacienda, mediante Orden publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, determinar el importe definitivo así como otras características de la emisión no señaladas por el presente Decreto, dentro de las previsiones del mismo.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de octubre de 2009.

El lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.